

LETREN KILIMAK

MIKELAZULO KULTUR ELKARTEA

Hizkuntzaren haztegieta haziak landatuz ibili dira letren kilimak. Oilo-ipurdi artistikoa, algaren erotasun ale bat baratza gazteetan sentiarazai nahian. Helburu baten bila, hain egoki ere, nerabezailaroko hesiei aterik zabaltzea, espresabide ezberdinak gozaten dituztenei aterik zabaltzea, jarrera bat aurkeztea errealitate poliedriko, mugikor eta aldakorrari ekiteko. Eta halakoetan ohi izan denez, helburua abiapuntu bat da. Xumea ez duelako zerbait zehatza lortzeko beharra edo nahia izan. Hurrengo eguna asmoan, atzo; atzo da, eta hau ez da metafora bat. Helburua abiapuntu bat da, letren kilimak aurreko errealitate polieztakitzer hori bezalakoa izan delako, hainbat musiko, margolari, poetak, (etiketak dira soilik, arren) osatutako taldea, non bakoitzak ahal zuen ate bat ihes edo ez ihes (hori ere galdera da) egiteko. Bidea sortuz edo alderantziz.

Bapateko erditzeak maiz aritu ditugulako, orri edo lientzo biak txurietan, partitura txurietan baita ere, belarrien estimulazioa

landuz, koloreena, argitzal kandelena, leku bat eskainiz zuri. Musikoak, Margolariak, Poetak, ez beti berak, aitzitik beti ezberdin, ia-ia. Agenda kudeaketa landuz, emanaldi bakoitzerako aukerak aztertzeke. Hontara; lau poeta, lau musiko, bi pintore eta diopak. Bestera; bost poeta, gainera hauetako bat, izango den musiko bakarra, cd-a eta pintore bat. Aldiro aldatzen zen proposamena, auskalok jarritako baldintzak ezin direlako bete. Nahasmenak konponduz edo sortuz, kaos txikiak ernaltzeko prest. Hitzordua jarrita, ikastola, instituto, euskaltegieta, iritsi gara. Haztegiok, iragandako galbaheak dira gutako zenbaitzarentzat. Oraindik irakasle berak topatu ditugu, usain ahaztu eta bertakoa, aldatutako eraikina ezagutuko ez banindu bezala (ikastola nirean). Ikasleen begiak sumatu ditugu. Begien han, gu. Gu, hain begiratu, arraro ikusiak bezala. Ikusiko duzue gero, gu.

Horrela, hazialdi bakoitza abiapuntuaren helburuari lotuta iragan zen. Eskeinutako emanaldi bakoitzak bilatu du ikusleikasleen-





gan poesia edo poetikoa izan daitekeenerako gertutasuna, sinbolikoki (poeten joera hori, badakizue), aulki hutsa, mahaia eta orri txuria gertu egon dira nahi izan duenarentzat. Bailara gertuko hizkuntzaren haztegieta bi ki-mu/de ausartu ziren gehien. Itziar eta Irene. Eskeinitalako poesiara hurbildutako lehenak. Kilimak, oilo-ipurdia eta algarak. Beraien ikasgeletatik irten zirenak aukeran barrenera unean sortzeko uneak. Ondorengo Olerkiaren Astean izen zirenak, errezitaldian egin genuen maiatzaren hamaseigarrenean, aipatu haztegieta arduradunekin burokrazia herrikoian adostutako

ikasleen poemen uztarekin batera. Azken hauei, geure ahotsa jarri genien, egileei irakurtzea idaztea baino zailagoa irudituta.

Irten bide ziren letren kilimak bidera, abia da bizian, horrela zirudielako egutegian, zurruntasunari tarterik utzi nahi gabe, aukera bat luzatuz hazi gehiagori abiapuntuen bila.

Letren kilimak eta ezinbesteko eskerrak harrera egin ziguten euskaltegi eta ikastetxeei.

Letren kilimak, oilo-ipurdia eta algarak eragin dizkiegunei, eskerrak.

Letren kilimak egin dituztenei.

